

Svetozar stojanovic

Idealaren eta errealdadearen artean

(Izmedju Ideala i Stvarnosti)
Beograd 1969

Azkeneko boladan ugaritzen ari dira, mendebaleko argitalpenak utzi ta eguzkialde komunistako lurraldeetan ere, marxismoa hain zuzen Marxekin eta bere izenean zorrozki eta gogorki kritikatzan duten autoreak. Marxen baitan ere joera ezberdineko printzipioak daude elkarren aurka, eta segun hautako zein indartu, marxismo diferenteak desarroila ditezke. Ezaguna da Kautskyk marxismoaren adierazpen arras ortodoxoa burutzen zuela, ta Leninek dogmakoitzat (ez marxistatzat, hortako) baziertu zuen. Bai Lenin eta bai Kautsky balia zitezkean Marxen autoridadeaz, halarebaina haren alde ezberdinez. Marx baitan Marx bakarrik ez baino Marx pila bat dagoela esan ditekete, ta eraberean Marxen interpretazio asko ere. Gaur joera bitan banatu ohi dira interpretazio ezberdinok: erreboxionistak (antistalinistak) eta antirreboxionistak. Azkeneko hauk mendebale liberallean giro hobea dute nonbait herrialde komunistetan baino (Txina ta Albania utzita) beren teoriak landu ta hedatzeko: Sweezy, Bettelheim, Solganick, Mandel (trozkista) etc. Zerek ez duen esan nahi, halare, erreboxionismoa U.R.S.S.-en eta inguruneetan ezker behaztopatu gabe ibil ditekunik. Izan ere erreboxionismoa bera ere ez da fenomeno bakunik, ezpada agerkeria ta radikal-tasun ezberdin askotakoa. Frantziako PC, esaterako, erreboxionista da ezpairik gabe (konzeptuok erabilkizun jeneralduean arabera bere horretan onartzuz: ez irain bezala, sarri halaxe erabili arren), baina alde galanta dago haren eta Garaudyren erreboxionismoaren artean. Batzutan sintomarik ere ez da falta filosofian erreboxionistarik porrokatuenak eta ekonomian antirreboxionistak oharkabeki elkarri hurbildu ta eskuhartu eginaz ez ote duten bukatuko. Mendebalean behintzat sarri bateratzen da erreboxionismo anti-burokratiko eta antistalinista ezker-radikalismoarekin («Commune» sistima soziala), agian ez anarkismo kutsurik gabe. Antirreboxionisten eta erreboxionista radikalenen abiaburua lehenengotik berdintsu agiri da: demokrazia falta, burokratismoa kondentzen dute. Tradizio asiaticokoan kritika horrek antirreboxionismoaren forma, mendebalekoan aldiz erreboxionismo radikalarena hartu izanak ez luke engainatu behar, halare.

EKONOMISTEN ERAGINA

Europako eguzkialde komunistan, berriz, ekonomistek (Liebermann U.R.S.S.-en, O. Sik Txekoslovakian) baino bultzada bortitzagoa eman diote filosofilariek erreboxionismoaren radikaltzeari, teoria borobiltzekoan behinik behin. A. Schaff eta Kolakowski poloniarrek izango ziren, agian, oraintsu arte ezagunetsuak. Garesti paga arazi zitzairen beren kritika. Gerorago poloniar gehiago ere altxatu zen: Baczko, eta berriki Kuron eta Modzelewski. Azkeneko biok hauteman eta salatatuko problemak ere ez ziren Polonian autore biok espetxeratuz nahikoa konpondu ta haiek igarri ta igararri bezalaxe langileria azkenean sublebatu egin dela agertu da. Sublebazio horietan, Txekoslovakian bezalaxe, eta Burgosen bezain guti noski, ez dago sistimaren «akzidente» soil batzuek ikusterik, sistima osoaren dudagarritasuna baizik.

Yugoslaviatik orain arte mendebalera agertutako «erreboxionista» ezagunena M. Djilas genuen ezpairik gabe, M. Markovic, Mihailow, P. Vranicki, etab. isil samar pasatu baitziren, beren lanak Djilasiak baino arreta gutiagorik inolaz ere merezi izan ez arren. Oraingoan ere liburu guztiz irakurgarri bat eskuratzen dugu Belgradetik: ohartzapenon buruan aipatutakoa. Itzulpenek berez duten atzerapenari begiratzuz ez da denbora asko egiten argitalpen jatorrizkoa agertu ta urte betetsura iadanik itzulita badadukagu, alemanera gutienez.

Liburu hau Garaudy, Fischer, Bloch, etc. mendebaleko autoreen joeran ezartzen da. Baina guztiok baino radikalago, konkretuago, ta batez ere osoago arituz, stalinismoaren kontrako ta autojestioaz egindako azterketa kritiku sakon frankoekin. Beharbada, halere, argiago ta zindoago datorkigu liburu hau ere stalinismoaren aurka diharduenean, autojestioaren kritika ta (defentsarekin batera) hobetzeko moduak proposatzekoan baino. Stalinismoaren kritikari bakarrik begiratu diot nik hemen.

Stojanivicek gaitz jeneralago baten denboraldi batetako forma pertsonal espezifikuko bezala ikusten du stalinismoa. Gaitz hori estatismoa da, ta Stalin uzkailez gero ez da ezertan aldatu, axalean ezpada. Beraz, « stalinismoaren » hauzian guztiaren kakoa ez da Stalin, eta bai estatismoa: hemen ere arbolak (Stalinek) basoa, egiazko problema ikus-tea galerazi du. Egitura batzuek posibilitatzen baitzioten hari bere jokabidea. Stojanovicék, bada, problema hori azkeneraino argitu nahi du: nola sortu ziren egitura haiek, hau da, marxismoaren edo leninismoaren zerk posibilitatzen zituen. Horregatik, bapatean gehien harritzen duena autorearen bere gaiarekin aritzeko libertatea da. Bi aldetatik hori: 1) Orain arteko autore marxista guztiak Marxen, gehienetan Leninen autoridadearen aurrean ere, begirunez beterik alto egin dute, autore kanonikuoak kritikatzan ausartu gabe. Gaudy, adibidez. Akats guztiak Stalini, eta harixe bakarrik leporatu ohi zitzaizkion (esaterako, noiz esan zen « Alderdia ta Stalin » edo « Alderdiak Stalinekin »?). Stojanovic barnerago doa, stalinismoa ez beharrezko egin, baina bai, posibilitatu egin zuten marxismoaren joerazko arriskuak Lenin eta Marx baitan bertan salatuz. — 2) Areago, gainuntzeko autoreak eliza marxista ortodoxoko literaturaz soilki zerbitzatu ohi ziren artean ere, Stojanovicek gogotik aipatzen du zenbait heterodoxo, eta « jentilak » berak ere: Sartre, Trotzki, Marcuse, Lukács, Gramsci, Fromm, edo-ta Mills, etc.

Marxisten (eta Stojanovicek halakoxetat daduka bere burua) aspaldioko literatur-produzioan hesi bi horiek tabu ziruditelako ikusiz gero, berehala soma dezake irakurleak liburu honek jenero horretan ohi eztaoko horizonte askoz zabalagotan dabilen bere gaia.

Liburua formalki neurritz hori esan badaiteke ere liburuaren merezimendurik gogezgarriena ezparririk gabe mamian dago. Ez libertatez bakarrik, ezpada jakituriaz eta sakontasun aparte kritikuz banatzen baitu Belgradoko Irakasleak bere gaia. Marxismoaren eta liburu santuen desmitologiazio antzean agiri zaigu hau. « Marxismoa izugarritzko krisian dago » aitortuz hasten da lehen kapitulua. Krisi praktikoa nahiz teoriakoan. « Marxismoak, gizarte burgesaren kritika gisa, bere ahalatasunak heinik haundientsuan beteta daduzka » ta bere burua sozialista izendatzen duen gizartearen kritika egitean dago harrezkero Stojanovicen ustez marxismoaren etorkizuna. Ezen-eta « Urriko erreboluzioa » degeneratu egin baita. « Marxismoaren aurrapenerako lehen-lehenengo aurre-baldintza halako 'Marxismoaren' kritikarik ahalik eta gogorrena dela esan daiteke ».

Stalinismoa kritiku deskribatu duen asko dago iadanik. Baina Togliattik eskatzen zuen berpentsaketa ez da oraindik osorik burutu. Parentesi baten antzean utzi nahi bailitzake hura, izena eman dion pertsonarekin hilobiratu ta likidatu izan bailitza. Eta ez jende gutik problema deskribatuz zilegiztatu egin dela uste du nonbait: U.R.S.S. lehenbailehen lantegiztatu beharra ze-

goen, esaten digute, ta bapo, problemaren kausak ez baino problemaren askabide stalinista (estatista) dagoela hauzitan ahazturik. Lantegiztatu beharra ez baitu inork eztabaidatzen, horretarako sortu ziren egiturak baino. Eta hoek marxismoarekin, sozialismoarekin konpajinatzerik ba ote dagoen, eta baiezkoan ere, sozialismoarentzat egokienak ote ziren. Ezen-eta azkar lantegiztatzen jakin bai baitzekien faxismoak ere, eta bere hiztegia sozialista-kolorekoa izan arren bestelakoxe egiturak sortu zituen.

Stojanovicek bilozit-bilozit mahain gainera ateratzen ditu problemak. Urriko Erreboluzioaren degenerazioak sortutako estatismoa ere — sozialista izeneko Erresumetan nagusi gaur — sozialismorik batere ez dela behin ta berriro irakur ditekete liburuan. Ez du sozialismorik abiatu, gutiago eraiki: kapitalismoa bera baino atzerago, feudalismoraino atzera arazi du gizartearen kondaira. Sistema « oligarko-autoritario » horretan funtzionarioen kasta jabetu baita gizartearen eta lan-produzioaren. Kausak? Inola ere ez lantegiztatu beharra, edo blokeoa bakarrik. Itxuragaltze horren kausak, beste beti aipatu horiez gainera, marxismoaren beraren barruan aurkitzen ditu Stojanovicek, eta *konzeptu falta-edo*, asmobide zehatzaren falta esanaz adieraz litezke. Erreboluzioari posibleak eta imposibleak eskatzen bazaizkio, izan ere, imposibleki plan egiten hasten dira funtzionarioak: idealaren eta errealidadearen artean galduta. « Nora doan ez dakienak ez daduka zergatik harritu, zeharo beste norabait irtetzen badu ».

MARXISMOAREN KRITIKA

Marx, teoria marxista-leninista eta erreboluzioa bera desmitologizatuz jarraitzen du Stojanovicek. Erreboluzioa egiteko langileriaren abangoardiak hartzen dituen erakundeak, erakunde honek dakarren helburuen ez zehazteak (helburuan posiblea ta utopikoa ez bereizteak) eta teoria marxista vulgata erraz batetan sinpleztatzeak, teoriak berez ere ugari daduzkan zehazgabezia, mugadurata zentzu-nahasteek guztiok posibilitatzen dute, autorearen esanean, erreboluzioa estatismoan amiltzea.

Adibide antzean hona pare bat: gizona erabat liberatu nahi zen, — erabat zapalduz bukatu da. Marxen gizon-konzeptua oso kaskarra da: gizonaren akats eta aje guztiak deklaratzan ditu Marxek produzio-egiturek erantsitakotzat. Produzio-egiturak berritu ala berria gizona ere, hortakoz. Gauza bera nor-galbide edo alienazioarekin: guztiak iruditzen zaizkio Marx-i produziomoldeek sortarazitako. Beraz, Marxen giza-irudi baikorrak ozta-ozta ezagutzen du gizonaren bezeko neurririk. Trotzki gizona erreboluzioaren ondoren bere gorpuzkeran ere airosoago, ederrago, eleganteago, osasuntsuago bilakatuko zela uste zuen!... Espekulazio-metafisikazko amets eta kondaira dialektikazko ezagupide izatearen artean dabilen orekan bururazio hori, errealitatea ta ide-

ala ezin berezirik. Hortakoz, iluntsu bakarrik deskriba ta finka ditezke erreboluzioaren gizonarekiko helburuak, benetako eginkizunak eta utopiazko ameskeriak zehazki banatu arte. Eta hoxe jazo ere : *produzio-harreman sozialak* iraultzeko helburu premiazko ta hurbil baina bere inplikazioetan (alegia, gizonaren askatasunari buruz) mugatuari erabateko signifikazio liberatzaile utopikoa aitortu zitzaion. Itxaropen neurrigabekeen helburu bihurtu da, orduan, berez franko mugatua den ekonomiazko esplotazioa gainditzeko asmobidea. Marxismoa ekonomiakerian erori da. Eta berehalaxe zedukan *produzio-molde berriak* ostera ere gizona mendea hartuta. Ezen-eta gizonak ez zirela itxarondako modukoak eta burukraziak eskuratu zuen *produzioaren gidaritzak*. Halare urteetan eta urteetan egin da gizonak egiazki berrituta zeuden komeria : ordu estrak, eginbeharrik zailenak egiten zituzten langileek, ordainik eskatu gabe ta « beren borondatez »... Hori guztia textuinguru konplejoagan gertatu zen noski. Prozesu horrekin korapilatuta baitago, adibidez, Alderdiaren teoria ere. Marxen sistimazko elementu deterministik oinarritzen dute hau, bere Leninen formulatan. Sozialismoa datorren dudarik ez dago, derrigor omen baitator, *produzio-desarrolloak* behartuta etorri ere. Eta Alderdia langilearen abangoardia antzean antolatzen da. Derrigorotasun hari aisa dario dogmatikoikeria, areago burrukaren baldintza gogorretan. Honek diziplina militarista eta helburuen lekuan helpideak ezartzea dakartzki (Alderdiak ez baitu sekula huts egiten, Alderdiaren helpideok derrigor eraman behar dute horrela helburuetara). Ideologiaren degenerazioa laster, moralgabezian bukatzen duen moraltasun militante utilitarista azkenerako, eta tirania. Alderdiko militanteak inkarnatzen du « gizon ideala ».

MARXEN HUTSUNEAK

Ideologiako zehazgabezia ta joerazko arrisku guzti horiek (eta Stojanovicek azaltzen duen askoz gehiagok) ezberdinki eragin diote zein nongo praktikari. Bi eratan batez ere : 1) segun zein marxismoren alderdi ta ikusgune *desarrollatu marxismo ezberdinak* sortu dira ta nazioarteko sozialismoaren batasuna hautsita gelditu da. Eta hain zuzen teoriak berak zeduzkan printzatuetatik kraskatuta, — 2) Alderdiaren barruan ere eritzi ezberdinak sortzen dira ta « garbiketen » ondoren teoria indarraren arrazoi ta lanabes soil

itzultzen da. Praktikak sortarazten duela teoria, eta aldrebes teoriarako egiaren erizpide edo kriterio praktika dela zeuden egon ere Marxek finkatuta. Zein praktikak ? Indarrak lasai-lasai sortaraz zezakean bere teoria, ta honek ez zekien indarra zilegiztatzen bestetan. Nagusiari arrazoi ematen dioten filosofolari marxistek bakarrik dardukate arrazoiak : eta honek Stojanovicentzat berarentzat ere balio du. Etabar, etabar. Ez demokraziarik, ez moraltasun egokirik eta ez klasejartearen gaindizterik lortu da, konzeptu ilun eta zientziak haina utopiaz (Stojanovicek primeran erakusten du Marxen utopismoaren eta determinismoaren arteko erlazioa) ta alde-bakarkeriaz betetako horiekin bere gogara prestidijitatu baitzezakean aldian aldiko nagusiak.

Kondaira-filosofia monistak, giza-konzeptu orobat monistarekin (honen alde txar oro eraskintzat, eta *nota bene* ez gizonaren naturalezakotzat hartuz) helburuan ere monismo batetara eraman zuen (*produzio-harremanak* irauli ta libre da gizona) ta monismo berdinerak, Leninekin eta Stalinekin, helpidea den proletargoaren burrukerakundean ere (Alderdiaren teoria). Elkar determinatuta dago hemen teoria ta praktika. Stalinen terrorea, etc. ez dira « akzidenteak » : ideologia marxista osokoian daude haien iturburuak.

Marxismoak bere barruan daduzka, hortakoz, bere buruaren kontrario itzul dezaketean joerazko arriskuak. Bere posibilidadadeak *desarrollatuz* heldu da marxismoa bere buruaren ukazio izatera heldu ere. « Hau (Stalinekin finkatutako marxismoa ta U.R.S.S.) ez da, sarri entzuten den moduan, marxismo guti ala asko degeneraturik. Fraseologia berdina erabili arren beste teoria berri bat da hau ». Horregatik ez da aski « atzera Marxengana » hots egitea, aurrerantzean Marx baino aruntzago, ta Marx bera ere kritikatu hartuz ibili beharra baitago, akatsok zuzenduz beren arriskuak saihesteko.

Stojanovicen liburua gogorra da, sozialismoaren gaurko nahiz atzeko degenerazio forma bakoitzaren azpian ideologiako bere korrespondentziak nabarmen uzten dituelako batez ere. Horrela, Autore kanonizatuen tabuarekin batera ideologiaren « zientziakotasunaren » mugak eta Alderdiaren mitoa ere tipi-tipiturik eta desmitologizaturik gelditzen dira. Metodu historiku-kritikuaren pipia marxismoaren dogmatika ere kupidarik gabe eta jaten ari da.

Svetozar Stojanovic 1931-ean jaio zen. Ikasketan Belgraden eginik, bertan dago Irakasle. « Serbiako Filosofia Elkartearen » buruzagi ta « Praxis » aldizkariko lankide da.

ADIVINANZA

El Servicio Radiotécnico de Interferencias del Gobierno español en San Sebastián hace grandes esfuerzos para impedir que se oiga en Guipúzcoa 'Radio Euzkadi', a pesar de ser ésta un órgano

de difusión reducida y estar en manos del « nacionalismo burgués ».

En cambio se oye sin interferencia alguna en esa misma provincia vasca la célebre radio marxista-leninista de Praga ('Radio Pirenaica').

¿ Por qué ?

P.S. — La respuesta en el próximo número.